

Zuzenbideko Gradua Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa

Prestakuntza osagarriko eskaintza

Pentsamendu kritikoa: argudiaketa eta komunikazioa

Zure ustez, bidezkoa al da gaurko gizartea? Gai al zara egungo egoera hobetzeko **estrategia juridikoak** identifikatu eta garatzeko? Gai ikusten duzu zeure burua auzi horien inguruan **jendaurrean eztabaidatzeko** eta **konponbideak proposatzeko**, **argudio egokiak eratu** eta **garatuz**, hala nola **kontrako argudioei aurre eginez**. Gaitasun horiek landu nahi badituzu, ziur gaude asko interesatuko zaizula gure proposamena!

Diskriminazioari eta gizarte bazterkeriari aurre egitea, eta **aniztasunaren eta tolerantziaren aldeko lan egitea** dira UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren helburuen ardatz. Horrela bada, **eremu horretan** garatuko da *pilotu* den **berrikuntza proiektu hau**.

Zuzenbideko Graduko 2. eta 3. mailako ikasleek izango dute proiektuan parte hartzeko aukera. Horren bidez, haien **heldutasun akademikoa** eta **gaitasun profesionala** garatu ahal izango dute, **balioetan oinarritutako prestakuntza aplikatua** eskainiko duen programa baten bitartez.

Proiektu honek **hiru ardatz** izango ditu: **pentsamendu kritikoa** – Klinika Juridikoak duen ikuspegiarekin bat eginez-, **argudiaketa** eta **komunikazioa**. Ikasleak jasoko duen **formazioa** Graduan jasotakoaren osagarri izango da, alegia, **curriculumez gaindikoa**, eta erabat aplikatua. Ikaskuntza-prozesu formalari **balio erantsia eman** nahi dion proiektua da hau, hain zuzen ere.

Horretarako **3 orduko hiru edo lau formazio-saio** aurreikusiko dira ikasturtearen **lauhileko** bakoitzean.

Hasteko, **ikuspegi kritikoari** buruzko mintegi bat izango dugu. Jarraian, **argudiaketa** landuko da tailer batean: argudioak nola eratu, ezeztatu, kontra egin, arrazoiketa landuz. **Ahozkoa komunikazioa** ere langai izango da.

Oinarritzko gaitasunak landuko dira: **entzumen aktiboa, asertibitatea, enpatia**. Era berean, zenbait egoeratan **blokeatzen** gaituzten **emozioak** ere aztertuko dira: beldurra, antsietatea, fobia eta estresa. Helburua da horiek ezagutzea eta nola kudeatu jakitea. **Blokeoak gainditzeko** jarraibide-dekalogo bat ere landuko da.

Ekitaldi honetan **proiektuaren esperientzia pilotua** garatuko da. Hori dela eta, garrantzitsua da ikasleek programari buruzko haien ikuspegia ere ematea. Izan ere, **ikasleen ekarpenak ezinbesteko** dira, irakasleok garatzen ditugun **hezakuntza-baliabideak eraginkorrak** izango badira!

Hasiera: 2017ko urriaren amaierako astea

Dedikazioa: 2-3 orduko 6 lantegi ikasturtean zehar. Fakultateko irakaskuntza-ordutegiarekin bateragarria (egutegiari eta ordutegiari buruzko xehetasunak informazio-bilera batean eskainiko dira)

Aitortza: 1,50 hautazko kreditu urtealdiko, eta parte-hartze ziurtagiria, Justizia Sozialaren aldeko Klinikak eta Juridikoaren eta Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordetzak emana.

Proiektuaren zuzendaritza: Ana Leturia (ana.leturia@ehu.eus)

Koordinazioa: Itziar Alkorta y Joseba Ezeiza (itziar.alkorta@ehu.eus / joseba.ezeiza@ehu.eus)